

## LEIHO ERTZETIK

- Leiho ertzetik entzun dezaket  
itsasoaren indarra,  
olatu pila nola lehertzen dan  
braust eta braust barra-barra,  
05 pentsatze hutsak begietara  
ekartzen didan negarra,  
momentu triste xamarra,  
eskegi<sup>(1)</sup> nuen txamarra, (bis)  
ni bezelako gizon batentzat  
10 ez ote da zoritxarra,  
itsasoa hain hurbil izan da  
ohean egon beharra. (bis)
- Sentimenduak loratzen zaizkit  
itsas ontzien irteeran,  
15 arraiz beteta datozenean  
bapore ho(r)ien sarreran,  
ez dakit ziur nere barruko  
grina normala ote dan,  
ez naiz aurkitzen primeran,  
20 bertan nahiago aukeran, (bis)  
hementxe nago itsas zabala  
begiz ikusteko eran,  
zenbat gorroto nuen lehen eta  
orain zenbait maite dedan ! (bis)
- Itsas barrura murgildu nintzen  
orduan nintzen mutiko,  
lanaren martxa sekula santan  
ez izan arren graziko,  
itsasoaren kontra hizketan  
30 ez nintzateke hasiko,  
larogei urte ta piko,  
ta nahiz ez nagoen tinko, (bis)  
itsaso hori be(g)iratu soilez  
ez det inola etsiko,  
35 nere eskutan baldin badago  
ni ez naiz ohean hilko. (bis)

(1) eskegi : pendu, suspendu

BACCALAUREAT DU SECOND DEGRE			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2002
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE - BATUA</b>
2BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 1/2

## I – IDATZIZKO ULERMEN GAITASUNA (10 puntu)

*Les candidats de la série S ne traiteront pas les questions 5, 6 et 9.*

1. Zein adin du testuan mintzo den itsas-gizonak ? (1 pt L / 1 pt S)
2. Noiz hasi zen gizon hau itsasoan lanean ? (1 pt L / 1 pt S)
3. Idatz itzazu itsaso hitz-eremuan sartuko zenituzkeen testuko hitzak. (1 pt L / 2 pts S)
4. Idatz itzazu sentimenduak hitz-eremuan sartuko zenituzkeen testuko hitzak. (1 pt L / 2 pts S)
5. Zergatik dio bertsolariak lehen ahapaldiko 7. lerroan "momentu trixte xamarra" ? (1 pt L)
6. Kantariak zera dio bigarren bertsoko 8. lerroan : "bertan nahiago aukeran". Non erran nahi du "bertan" dionean ? (1 pt L)
7. Azal ezazu bigarren bertsuko 11-12 lerroetan agertzen den hau : "zenbat gorroto nuen lehen eta orain zenbat maite dedan ?" (1 pt L / 1 pt S)
8. Andoni Egañak honela bukatzen du azken bertsoa : "nire eskutan baldin badago ni ez naiz ohean hilko". Zer erran nahi du honekin ? (1 pt L / 2 pts S)
9. Deskriba ezazu bertso hauetan leiho ertzetik gogoetan ari den marinela. (1 pt L)
10. Testuaren arabera, maite du itsasoa marinel honek ? (1 pt L / 1 pt S)

## II – IDATZIZKO ADIERAZPEN GAITASUNA (10 puntu)

*Les candidats de la série S composeront uniquement sur la question 1.*

1. Idatz ezazu hogeit bat lerrotan arrantzaleen biziaz pentsatzen duzuna.
2. Zer iritzi duzu gizakiek egiten duten itsasoaren erabileraz ? (Hogeit bat lerro).

BACCALAUREAT DU SECOND DEGRE			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2002
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE - BATUA</b>
2BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 2/2

Iparraldeko azken Eskualdunak Iratiko txalet batean daude, Maixan Lumaeder idazleak gomitaturik. Elgarrekin, gogoetak egiten dituzte Eskualtasunaren kenka larriaz. Elur ekaitza batengatik, denak hor kokatuak dira. Eta huna erahilketak hasten direla...

- 05 **Ramuntxo Aztalarin, Peio Xirulet, Amédée Xango**  
 RAMUNTXXO AZTALARIN : Egia da morala zangopetan zuela gaixo Maixan-  
 ek ! Ez zuen euskaltasunaren desagertzea bere begiez ikusi nahi ! Nahiago  
 izan du lehenago berak beste mundurat joan !
- 10 PEIO XIRULET : Gutti aski zuen halere ! Nik kondatu banakon euskal soinua  
 zoin gaizki dugun : baditu urteak ez dutala euskal tresna baten  
 pratikatzerat etorri den ikaslerik ikusi ene musika eskolan ! Denak gitarra  
 elektrika okaztagarri hartarat doatzi ! Balakite bihotza nola pizten zauzun,  
 doinu alai eta arinak jalgitzen dituzularik xixtuaren xiloetarik,  
 errexiñularen pare ! Eta duela zombait aste, gazte bat jin zaut txistuaren  
 15 ikasterat ! Ezin sinetsia ! Berehala eskatu diot zer ziren bere  
 motibazioneak : ihardetsi daut bere burrasoek zutela igorria, gaztiguz edo  
 punizionez, ez zuelakotz eskolan deus onik egiten ! Huna zertaratuak  
 giren : txistua zigorra bilakatua da !
- AMÉDÉE XANGO : Eta zertan da orai ? Segitzen du beti ?
- 20 PEIO XIRULET : Bah ! Zera ! Txistutik ateratzen zituen notak eskolakoak  
 bezain txarrak izanez, gitarra elektrika ikasterat bidali dut !
- AMÉDÉE XANGO : Kartetan, hein berean gira ? Orai, gatz eta biperrik gabeko  
 belota hortarat lerratzen dira denak ! Ez dute sekulan jakinen zer zoriona  
 ekartzen duen musak : nola, bi errege sartzen zauzkizularik, gorputz guzia  
 25 bozkarioz burrustaka betetzen zauzun !

(Xalbattin sartzen da)

**Ramuntxo Aztalarin, Peio Xirulet, Amédée Xango, Xalbattin**

- XALBATTIN : Bertsularitzan berdin da ! Iparraldeko azkenetarik bat naiz !  
 Duela zombait urte nola eskuara oraino doi bat egiten bazen ere, ez zen  
 30 gehiago nehor bertsolaritzari lotzen, legeak errextu ginituen gazten  
 interesarazteko ! Badakizue lehenago "Poto" -ak debekatuak zirela...  
 badakizue zer den poto-a ! (bestek ezetz) : bertsu berean hitz bera baliatzea  
 bi lerro muturretan ! Denboran, Poto batek puntuak galarazten zituen  
 xapelketa batean ! Orai, Poto gehiago egin eta puntu gehiago ardiesten  
 35 duzu ! Sebastien Lizaso izeneko batek zaunkun ideia proposatu !  
 Badakizue nor zen Lizaso ?
- AMÉDÉE XANGO : Zikiro jale bat ?
- XALBATTIN : Ez bakarrik ! Bainan molde hunek ere fruitu gutti eman zuen !  
 Bah ! Igual du, azkenean ! Zikiro bestak badireno !

40 (Pantxika Solsoprano, Panpi Sare eta Aita Aritzabelar berriz sartzen dira)

Pantxo Hirigaray  
Lamindegiko laminak  
 Kutxa Fundazioa, 2000

BACCALAUREAT DU SECOND DEGRE			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2002
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE - LABOURDIN</b>
2BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 1/2

## I – ULERMENA (10 puntu)

*Les candidats de la série S ne traiteront pas les questions 4 et 5.*

1. Zergatik Peio Xirulet kexu da ? (1 pt L / 3 pts S)
2. Zer senditzen du Amédée Xangok kartetan ari delarik ? (1 pt L / 2 pts S)
3. Zer gertatu zako Maixani ? (2 pts L / 2 pts S)
4. Zer erran dezakezu pertsonaien izener buruz ? (2 pts L)
5. Zer pentsatzen du idazleak Lizaso bertsolariak ? (2 pts L)
6. Itzulpena egizu : "Nik kondatu ... Ezin sinetsia !". (2 pts L / 3 pts S)

## II – ADIERAZPEN PERTSONALA (10 puntu)

*Les candidats de la série S composeront uniquement sur la question 2.*

1. Zu, Pantxika Solsoprano zira. Agerraldi hunen bururatzean agertzen zira, Panpi Sarerekin eta Aita Aritzabelarrekin. Zuk ere zure eskualtzale griña aipa ezazu (15 lerro guttienez). (5 pts L)
2. Idazlaneko euskaltzaleak oro kexu daude, eskualtasunaren balore guziak galtzerat doazelako. Zer diozu zuk hortaz ? Zure gogoetak adibide batzuez lagunt itzazu (20 lerro guttienez). (5 pts L / 10 pts S)

### BACCALAUREAT DU SECOND DEGRE

SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2002
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE - LABOURDIN</b>
2BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 2/2

# ETXONDOA

05 Bena partü düt egün batez senar-emazte elibat Ameriketa zolatik jinik. Emaztearen ama Urepeleko zen ; gaztetik Ameriketarat joanik, hontarzüna eginik, ez zen sekülan etxerat ützüli, eta orano han bizi da, zahartto bena bere etxondoa ahatze gabe. Alabak hitzeman zeion bere amari haren sorleküaren ikustera jinen zela, ber denboran haren anai zahar baten ere.

10 Antonio ez zen güti gozatü bere arrebaren berrier beha ; bere etxano ttipian lanean ariz bizi zen, familiarik gabe, arrebatik hürrün, eta ez zeion aspaldian holako zohardi ederrik agertü bere bizitzean, nola ülün heltze hartan, bere lloba eta haren senarra heltü zeitzonean batere esperantxarik gabe ! Zer plazera ere ikustea bere llobak, Eüskal Herritik hürrün sortü izana gatik, Eüskara hitz zombait bazakiala !

15 Ostatüala jin ziren oro bazkal tenoreko, Antonio bere laneko arropekin, bena bihotza laxü eta argi. Bena llobari gogoala jin zeion bazkal eta, behar züala ikusi bere amaren eta osabaren etxondo zaharra. Antoniok zion hürrünxko zela, eta etxea deseginik zela, aspaldian ez zela kabale baizik barnean izan (...). Bena emazte gaztea ez zen horren gatik losatzen, eta hona nola bazkal eta, oro joan ginen algarrekin bide xenda bati goiti, mendian gora, Antonio eta ni harri arteetan aisaxko ebiliz, beste biak aldiz beren oski aztal txütekin bortxaxeago ! Atzo algarrentako arrotz eta egün adiskide, ber odola zelakoz gure zainetan eta gure bihotzean gure Eüskal Herriaren ber amodioa. (...)

20 Bena Antonio ützültzen da gure ganat, eta erri batekin erakasten deigü etxe zahar bat, erraitez : - "hau da gure sorleküa !"

25 Bi gaztainatze handiren itzalean zagon gure etxe gaixoa : leiho, bortak zerratürrik, lo zagolako itxüra bazüan, edo heltübada nigarrez zagon, bere haurrak galdüz geroztik ezin kontsolatüz ! Nork daki zer züan gogoan ? Barnetik ezagün zen kabale andana bat, kanpoalako tenorea jin artino esnaur. Gainea, sükalte eta kanberen leküa, belarrez beterik zen.

Lüzaz egon zen ixil-ixila amerikarsa gaztea, etxe txar hari soz : alde orotarik üngürüz xoko güzieri soz, üdüri beha zaudela eia orano bizi zenez etxea, eta ezagütüko züanez bere haurra ! (...)

30 Gaztainatze pean jarri zen emazte gaztea, bere ama han jarri zatekeala ; gero jeiki eta lau gaztaina ezari züan sakolan, eta bi mardots paper batetan mandolatü bere amari eramaiteko.

35 Barnean sar eta (...) etxeko alaba gure ondotik zagon bazterrer so, bertz, mahain eta ohe zur haien hunkitzez, bere etxeko zaharretarik zombait han atzaman balütü bezala. Eta drolexko zen ikustea arropa eder eta jaun-andere haien borda hartan barnean ! Lehenago zortzi – hamar haur beren etxekoekin bizi ziren han, ez aberats, bena bai irus ; eta azkenekoz oro bedera alde hegaltatü zirenean haurrak, besteetan biziaren largoki irabazteko, azkenak, hiruetan hogeï urte hontan etxerik joanik, ez züan orano bihotzetik galtzen ahal bere etxearen oritzapena, eta berak zaharregiz ezin jinez, kargatü züan bere alaba etxondoaren ikusteaz...

"Urepelen" P. Picochet  
Zuberoako idazle zenduak Jean-Louis Davant

Hiztegia :

(1. 1) partü düt : kürütxatü, arrakuntratü

(29. 1) mandolatü : biribilkatü

BACCALAUREAT DU SECOND DEGRE			
SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2002
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE - SOULETIN</b>
2BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 1/2

## I-ULERMENA (10 püntü)

*Les candidats de la série S ne traiteront pas la question 3.*

1. "Lüzaz egon zen (25. l) ... amari eramaiteko". (30. l) : zati hori frantsesealat ütüzü ezazü. (3 pts L / 4 pts S)
2. Zerentako jin da amerikarsa gaztea Ürepelerat ? Zertan dira neskatilaren sendimentüak ? (3 pts L / 4 pts S)
3. Nontik ageri da idazleak Eüskal Herria maite düala ? (2 pts L)
4. Nola erakasten dü, harentako jinbehar bat bezala zela emigrazio fenomeno hori. (2 pts L / 2 pts S)

## II – ADIERAZPEN PERTSONALA (10 püntü)

*Les candidats de la série S ne traiteront pas la question 1.*

1. Egizü ezagützen düzün etxe hüts eta zahar baten deskribapena. Zer sendimentü sorarazten deizü etxe bat edo etxalte batek hola hüstürük eta nülatürük. (5 pts L)
2. Zer erraiten ahal düzü eüskaldünen emigrazioaz :  
Norat joaiten ziren ? Zerentako ? Zoin ziren emigrazio horren arrazuak ? Nola igaraiten zen hanko bizitza ? (5 pts L / 10 pts S)

BACCALAUREAT DU SECOND DEGRE

SERIE L	COEFF : 4	DUREE : 3 HEURES	SESSION 2002
SERIE S	COEFF : 2	DUREE : 2 HEURES	EPREUVE : <b>BASQUE - SOULETIN</b>
2BSLSME1	CE SUJET COMPORTE 2 PAGES.		PAGE 2/2